

ZUMARRAGA-URRETXU / Juan Mari Irigoienekin solasean, irakurle taldean

Pasa den asteazkenean egin zuen Zumarraga-Urretxuko irakurle taldeak apirileko bilkura. Oraingoan, Joan Mari Irigoien idazle altzatarren 'Bestea da mundua' liburua irakurri eta komentatu dute, Orbetarrak trilogiako lehenengo liburua. Joan Mari Irigoien bera ere, bilkuran izan zen gainera; solasaldian parte hartu zuten irakurleen hainbat galdera eran-tzun zituen eta beste hainbat kontu ere izan zituen hizpide. Solasaldi benetan atsegina izan zen.

Maiatzean egingo du euskarazko irakurle taldeak ikasturte honetako azkeneko bilkura, maiatzaren 26an, zehazki. Hondarreko bilkura honetan, euskal autore ezberdinen poesia landuko da, saio horretarako propio prestatutako bilduma batean oinarrituz. Bilduma Zumarragako liburutegian egongo da eskuragarri, nahi duen edonorentzat.

Maiatzaren 26ko bilkura, eguraldi ona lagun, Santa Barbaran egingo da, jarraian mokadutxo bat egiteko aukera ere egongo delarik, ikasturteari amaiera emateko. Eguraldi txarra egingo balu, berriz, bilkura Zelai-Arizti kultur etxean egingo da.